



FUNTSEZKO ELKARTEAK

Hasierako bazkideak hurrengoak izango dira:

- Aimar txoferren nagusia izango da. Beraz, bera arduratuko da txofer desberdinak kontratatzeaz eta eman beharreko diru-kopuruaz.
- Jon garbikuntzako antolamenduaz eta finantzaz arduratuko da. Enpresa batekin harremanetan jarriko da, eta bertatik kontratatuko ditu hainbat garbitzaile. Halaber, enpresaren finantzazioaz arduratuko da.
- Nora kotxeen antolakuntza eta mantenimenduaz arduratuko da, kotxeak kondizio onean daudela ziurtatu beharko du, eta istripuren bat balego, seguruen kontrola eta karabanen piezen aldakuntza eramango du.



- Miren eta Adriana patrozinamenduaz arduratuko dira. Beraiek sortuko dute webgunea, eta sare sozialetan gure zerbitzuaren berri emateaz arduratuko dira. Azkenik, bezeroekin harremanetan jarriko dira, hau da, komunikazio eta administrazio lana izango dute.





Karabanak eta autoak *leasing* enpresa baten bitartez alokatuko ditugu. Enpresaren egoeraren arabera auto eta karabana horiek erosteko aukera izango baina *leasing*-ak hasiera kostuak murrizteko aukera ona izango da.

